

**SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**ERREUMATOLOGIA ZERBITZUA**

**HIZLARIA: OIHANE IBARGUENGOITIA BARRENA DK.**

**MODERATZAILEA: OLAIA FERNÁNDEZ BERRIZBEITIA DK.**

**2019KO MAIATZAREN 31N, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA)**

## **KASU KLINIKOA**

### **AURREKARI PERTSONALAK:**

- Alergia ezagunik ez.
- Erretzailea (10 zigarro/egun)
- Hiperkolesterolemia
- Behçet sindromea (2001). Neurobehçet (2002) eta ubeitisa ere baditu. Neurobehçet-a irudi bidez diagnostikatu zen eta egunerarte ez du inolako sintomatologiarik azaldu.
- Ohiko tratamendua: errosbastatina 20 mg, adiro 100 mg, azatioprina 50 mg, golimumab 50 mg/hilean.

### **EGUNGO GAIXOTASUNA**

54 urteko emakumezkoa. Azken 3 egunetan amnesia gertaera gorabeheratsuak izan ditu eta bere senarrak esaldi desberdinak behin eta berriz errepikatzen dituela dio. Ez du beste klinika neurologikorik azaltzen. Ez du klinika infektiosorik ezta beste klinika garrantzitsurik ere.

### **ARAKETA FISIKOA**

TA 180/100 mmHg; BM 92; Tª 36.8°C

\* Miaketa orokorra: normala

\* Miaketa neurologikoa: kontziente eta orientatuta. Atentzioa mantentzen du. Ondo errepikatzen eta izendatzen du eta agindu konplexuak ondo betetzen ditu. Hitz fluentzia kaltetuta (10 hitz minutu batean). Anamnesiaren momenturen batean hizketaren haria galtzen du. Amnesia anterogradioa ondo mantentzen du. Pentagonoa ondo. Erlojua 7/10. Afektu desagokia (arrazoi gabeko irribarrea). Ez du nahaste konduktual edo esfera psikotikoko aldaketarik azaltzen. Pupila egokiak. Kanpimetria egokia. Pare kranealak ondo. Asimetriarik ez. Indar eta sensibilitate aldaketarik ez. Azal-oin zolako flexiozko erreflexua. Erreflexu muskularrak ondo. Koordinazio arazorik ez. Martxa egokia.

### **PROBA OSAGARRIAK**

\*Odol analitika: aldaketa nabarmenik ez.

\*Likido zefalorakideoaren azterketa: itxura argikoa, hematie 0/μL, leukozito 1/μL, glukosa 95 mg/dl (50-80 mg/dl), proteinak 28 mg/dl (15-40mg/dl) eta ADA 1.8 U/L (<10 U/L).

\*Gernu-azterketa: aldaketa nabarmenik ez.

\*Garuneko eskanerra: leukopatia zeinuak (alde zurretik ezagunak). Lesio hipodentso berri bat eskuineko barruko kapsulako aurreko besoan.

- Aurrekoez gain zein proba diagnostiko eskatuko zenituzke?
- Zein da susmo diagnostikoa?
- Zein tratamendu jarriko zenioke?